



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

UDALBATZAK 2015KO EKAINAREN 30EAN EGINIKO EZ- OHIKO OSOKO
BILKURA

BERTARATUAK:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia
Miren Itziar Arratibel Imaz
Jesús Peñagarikano Labaka
Arkaitz Fraile Quijera
Hanot Karrera Amondarain
Irati Ozaita Azpiroz
Maria Iciar Jauregui Huarte
Juan Luis Cid Conde
Victoria Rodriguez Feloaga
Maria Cristina Goya Amiama
Eleuterio Sanchez Garcia

Ibarran, **bi mila eta hamabosteko ekainaren hogeita hamarrean** arratsaldeko zazpiak zirenean udalbatzak bilera egin zuen udaletxeko bilera-aretoan eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ez-ohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru, Mikel Agirrezabala Ezkurdia Alkate bezala, eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave aritu zen.

EZ DIRA AGERTU:

Ibarran, bi mila eta hamabosteko ekainaren hogeita hamarreko, arratsaldeko zazpiak direnean, Udalbatzak bilera egin du udaletxeko bilera-aretoan eta goian adierazitako jaun-andreak elkartu dira ez-ohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkate jauna izan da, eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Egintza hasi aurretik 179/2015, 180/2015 eta 181/2015 alkate dekretuen berri emango dela jakinarazten da legeak honela ezartzen baitu Toki Erakundeetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoaren 46 artikulua adierazi bezala.

Udalburuak jendaurreko egintza ireki dela adierazi du eta gai-zerrendako honako puntu hau aztertu da:

1) Alkate ordean izendapen, Gobernu Batzordeko kideen izendapen eta eskuordetzen diren eskumenen inguruan ebatzirik Alkate Dekretuen jakinarazpena.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- 2) Udalbatzaren Bilkuren aldizkakotasuna ezartzea
 - 3) Batzorde Informatibo Iraunkorrak eratzea eta osatzea
 - 4) Kide anitzeko organoen Udal ordezkariak izendatzea
 - 5) Tokiko Gobernu Batzordearen Eratzea
 - 6) Alkatea eta zinegotzien liberatzea eta beraien ordainsari erregimena erabakitzea
- 7) Galde-Erreguak.

LEHENENGOA

**ALKATE ORDEEN IZENDAPEN, GOBERNU BATZORDE KIDEEEN IZENDAPEN
ETA ESKUORDETZEN DIREN ESKUMENEN INGURUAN EBATZIRIKO ALKATE
DEKRETUEN JAKINARAZPENA**

Alkateak honako proposamena egiten dio Udalbatzari alkateorde eta zinegotzien izendapenaren inguruan. Alkate Dekretu 181/2015 bidez, honako zinegotzi hauen izendapena burutu duela jakinarazten du:

- 1.engo ALKATEORDEA: MIREN ITZIAR ARRATIBEL IMAZ
- 2.engo ALKATEORDEA: JESUS PEÑAGARIKANO LABAKA

Izendatutakoei, izendatuak izan diren ordenan, Alkatea ordezkatzeko dagokie honen funtzio guztiak hartuz, bera ez badago, gaixo badago edo bere eginbeharrak galarazten dion ezintasunik balu, bai eta kargua hutsik geratzen bada ere Alkate berriak jabetzan hartu arte postua.

Hautatutako bakoitzari pertsonalki jakinaraziko zaizkie egindako izendapenak eta Alkate Dekretu 181/2015 Probintziako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

181/2015 ALKATE DEKRETUA

Ikusirik udal korporazio berria 2015eko ekainaren 13an eratu dela.

Kontutan harturik Toki Antolamenduaren 7/1985 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa, Alkate ordeak udalerrri guztietan egon behar dutela.

Kontutan harturik 7/1985 Legearen 21.2 artikulua eta 2568/1986 Errege Dekretuaren 46 artikulua arabera, Alkatearen eskumena dela alkate ordeak izendatzea. Eta Errege Dekretuaren arabera, izendapen horiek Tokiko Gobernu Batzarraren kideen artean egin behar direla.

Kontutan harturik 180/2015 dekretuaren bidez Tokiko Gobernu Batzarra eratu dela eta bertako kideak izendatu direla.

Aipatu guztiagatik.

EBAZTEN DU



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

LEHENA.- Udal honetako zinegotzi diren eta Tokiko Gobernu Batzarreko kide diren MIREN ITZIAR ARRATIBEL IMAZ eta JESUS PEÑAGARIKANO LABAKA izendatzea; lehen alkateorde bezala lehenengoa eta bigarren alkate orde bezala bigarregoa.

BIGARRENA.- Osoko Bilkurari Ebazpen honen berri ematea; eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratze.

Alkateak honako zinegotzi hauek proposatzen ditu Gobernu Batzordeko kide bezala, Alkate Dekretu 180/2015 bidez.

MIKEL AGIRREZABALA EZKURDIA : lehendakaria
MIREN ITZIAR ARRATIBEL IMAZ: bokala
JESUS PEÑAGARIKANO LABAKA : bokala

180/2015 ALKATE DEKRETUA

Ikusirik Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 20. artikuluan eta Antolamendu eta Funtzionamendu Araudiak (7/1985 Legearen)35. artikuluan xedatutakoa hartu da kontuan; horrela bada Gobernu batzordea beharrezko organoa da 5.000 biztanletik gorako herrietan eta Arautegi Organikoak hala ezartzen duenean edo udalbatzarrak hori erabakitzen duenean.

Alkateak proposatzen du berau eratzeari beharrezko jotzen duela nahiz eta Ibarrek ez dituen 5.000 biztanle eta ez duen onartu Arautegi Organikorik. Udal eskumeneren barne nahiz kanpo funtzionamendurako eraginkorrerago ikusten du eratzeari. Gobernu Batzordeak izaera irekia izango du parte hartu nahi duten zinegotzi guztientzat nahiz eta bertako kide ez izan.

Kontuan harturik aipatutako lege xedapenaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarra, Alkatea eta zinegotzietatik osatutako delak, eta azken hauek ezin dutela osoko bilkurako herena baino gehiago izan; hiru kide izendatzen dira.

Kontutan harturik 7/1985 Legearen 23. artikuluan eta 2568/1986 Errege Dekretuaren 46 artikuluan arabera, alkatearen eskumena dela Tokiko Gobernu Batzarraren kideak izendatzea, gero Osoko Bilkurari horren berri emanez.

Kontutan harturik 7/1985 Legearen 21. artikuluan eta 2568/1986 Errege Dekretuaren 41.3 artikuluan arabera, Alkateak bere eskumenak delegatu ditzakeela, besteak beste Tokiko Gobernu Batzordean.

Aipatu guztiagatik .

EBAZTEN DUT

LEHENA.- Tokiko Gobernu Batzordek kide hauek izendatzea:

- Lehendakaria: MIKEL AGIRREZABALA EZKURDIA
- Bokalak
 - MIREN ITZIAR ARRATIBEL IMAZ
 - JESUS PEÑAGARIKANO LABAKA

BIGARRENA.- Tokiko Gobernu Batzordean Alkatearen ondorengo funtzioak eskuordetzea:

1. 18.000 eurotik gorako obrak, zerbitzuak eta hornidurak kontratatzea eta ematea, horien kopurua 300.000 euro baino gehiagokoa ez bada, hainbat urtetarakoak direnak ere sartzen dira, lau urte baino behiagorako ez badira, baldin eta urte guztietako zenbatekoak metatuz ez bada gainditzen ez aipatutako ehunekoa, lehen ekitaldiko aurrekontuko baliabide arrunteei dagokienez, ez eta aipatutako kopurua ere. Kontratu hauek esleitzeko pleguen onarpena.
2. Obra eta zerbitzu egitasmoak onartzea, haiek kontratatzeke edo emateko eskumena



IBARRAKO UDALA

(Gipuzkoa)

Euskal Herria

badu

3. 18.000 eurotik gorako ondasunak eta eskubideak erostea, haien balioak ez badu 300.000 euro gainditzen, eta bestalde, adierazitako ehuneko eta zenbateko hori gainditzen ez duen ondarea besterentzea, ondoko kasu hauetan:
 - a. ondasun higiezinak, aurrekontuan aurreikusita badago
 - b. ondasun higigarriak, balio historiko artistikoak izan ezik aurrekontuan besterentzea aurreikusita ez badago.
4. Planeamendu orokorraren garapenerako planeamendu tresnak onartzea, ez badaude udalbatzari espresuki esleituak, bai eta hirigintza kudeaketarako tresnak, bere eskumenen arabera dagozkion hirigintza hitzarmenak barne, eta hirigintza egitasmoak, eta eraikin berrien kasuetan, obra handien baimena eta erabilera baimena ematea.
5. Aurri-deklarazioak egitea, berehalako aurri-deklarazioa izan ezik.
6. Hirigintzako zehapen espedienteen ebazpenak, larri edo oso larriak direnean.
7. Udal ordenantzekiko arau hausteak zigortzea 600 eurotik aurrera, non eta ahalmen hori beste organo batzuei egotzirik ez den.
8. 18.000 euro eta 300.000 euro bitarteko gastuak baimentzea eta baliatzea, bere ahalmenen barruan.
9. Langileak hautatzeko probetarako oinarriak onartzea, bai eta lanpostu lehiaketetarako ere, eta finkoak eta aldizka-aldizkakoak ez diren ordainsariak banatzea.
10. Udal administrazioko funtzionarioei diziiplina espedienteak irekitzea.
11. Ondare erantzukizun espedienteak ebaztea
12. 1000 eurotik gorako diru-laguntzak ematea, diru laguntza hauen oinarriak onartzea eta diru laguntza hauen zuriaketak onartzea.
13. Emakida, alokatze edo lagapenerako ahalmenak ondasunak erabil daitezzen, betiere horien iraupena bost urte baino gutxiago bada eta urteko aurrekontuaren baliabide arrunten %10 gainditzen ez badute.
14. Kontuhartzaitzetan jasotzen diren eta aurrekontuan gauzatzeko arauari dagokion ordainagiriak onestea, udal aurrekontua gauzatzeko oinarrietan xedatutako betetzen bada.

Alkateak Tokiko Antolamenduaren 7/1985 Legearen 23. artikuluan xedaturikoa kontutan izanik, bere eskumenak eskuordetzeko ahalmena du. Alkate Dekretu 179/2015 bidez, MIREN ITZIAR ARRATIBEL IMAZ Gizarte Zerbitzuko eta Kulturako zinegotzi izendatzen du bertan ezarritako eskuduntzak eskuordetzen dizkio.

179/2015 ALKATE DEKRETUA

Ikusirik udal korporazio berria 2015eko ekainaren 13an eratu dela.

Kontutan harturik Toki Antolamenduaren 7/1985 Legearen 23. artikuluan xedatutakoa, Alkateak bere eskumenak eskuordetzeko ahalmena duela.

Kontutan harturik 7/1985 Legearen 23.4 artikulua eta 2568/1986 Errege Dekretuaren 43.3 artikulua arabera, Alkateak bere eskumenak edozein zinegotzian eskuorde dezakeela.

Aipatu guztiagatik .

EBAZTEN DU

LEHENENA.- Miren Itziar Arratibel Imaz Gizarte Zerbitzuetako eta Kultura zerbitzuko zinegotzi delegatua izendatzea, honako funtzio hauek eskuordetuz:

1.- 18.000 eurotik beherako obrak, zerbitzuak eta hornikuntzak kontratatzea eta ematea, hainbat urtetakoak direnak ere sartzen dira, baldin eta urte guztietako zenbatekoak metatuz ez bada gainditzen ez aipatutakoa (hauek egiteko pleguak onartzea)



IBARRAKO UDALA

(Gipuzkoa)

Euskal Herria

2.- 18.000 eurotik beherako ondasunak eta eskubideak erostea eta baita hauen besterentzea ere baldin eta kopurua ez bada gainditzen eta kasu hauetan:

- a. Ondasun higiezinak, aurrekontuan aurreikusita badaude
- b. Ondasun higigarriak, balio historiko artistikoa izan ezik aurrekontuan besterentzea aurreikusia ez badago.

3.- 18.000 eurotik beherako gastuak baimentzea eta baliatzea, bere ahalmenen barruan.

4.- 1.000 eurorarteko diru-laguntzak ematea. Diru laguntza hauen zuriketak onartzea

5.- Gizarte zerbitzuetan: larrialdietarako laguntzak ematea, fidantza itzulketak, dirulaguntzak batzeko baimenak eman

BIGARRENA.- Osoko Bilkurari Ebazpen honen berri ematea; eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratze.

EAJ-PNV alderdiaren zinegotzi den Itziar Jaureguik hitza eskatu eta honakoa azaltzen du: ez da onargarria EAJ alderdiari dekretu hauen berri eman ez izana eta Udalbatzan aurkeztea erabaki hauek beste alderdiei jakinarazi gabe. Beraz EAJ-PNV taldeak Udalbatza eta egingo diren bileretako informazioa aldeztetik aurkeztea eskatzen dute.

Idazkariak honen inguruan argitzen du, berak informazioa ez duela Udalbatza egunerarte izan eta ezin izan dela ezer jakinarazi.

BIGARRENGOA

UDALBATZA BILKUREN ANIZKOTASUNA EZARTZEA

7/1985 Legeak, Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 46. artikuluan xedatutakoa hartu da kontuan, bai eta Toki-korporazioen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide-juridikoari buruzko arautegiak 77. eta 78. artikuluetan xedatutakoa ere, zeinetan Udalbatzarrak ohiko bilkura gutxienez hiru hilabetean behin egin behar duela ezartzen den eta udalbatzarrari dagokiola bilkura horien aldizkakotasuna ezartzea esaten den.

Alkateak, udalbatzarra osatzen duten kideei Udalbatzarraren ohiko bilkurak 2 hilabetetik behin egitea proposatu die, 2.en hilabeteko azken ostegunean arratsaldeko 19:00 etan eta ez-ohiko bilkurak aldiz; gaiak hala eskatzen duenean, Udalbatzarra osatzen duten legezko kideen laurdenak hala eskatzen duenean edo udalburuak hala erabakitzen duenean egingo direla oroitarazi du.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Udalbatzak, 6 aldeko botorekin, (BILDU) eta eta 5 abstentziorekin (EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Ibarra Udaleko Udalbatzarren ohiko bilkurak 2 hilabetetik behin egitea, 2.en hileko azken ostegunean arratsaldeko 19:00 etan eta ezohizko bilkurak gaiak aldiz; hala eskatzen duenean, Udalbatzarra osatzen duten legezko kideen laurdenak hala eskatzen duenean edo udalburuak hala erabakitzen duenean egingo dira.

HIRUGARRENA

BATZORDE INFORMATIBO IRAUNKORRAK ERATZEA ETA OSATZEA

Toki-korporazioen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren

Arautegiak 123., 124., 125. eta 126. artikuluetan xedatutakoa hartu da kontuan.

Alkate-jaunak Batzorde Informatibo Iraunkor hauek eratzea eta osatzea proposatu du:

1.- POLITIKA FEMINISTA ETA ANIZTASUNA

- LEHENDAKARIA: IRATI OZAITA
- KIDEAK: ARKAITZ FRAILE
- GAINONTZEKO BILDU KOALIZIOKO ZINEGOTZIAK
- MARIA CRISTINA GOYA, VICTORIA RODRIGUEZ
- GAINONTZEKO EAJ-KO ZINEGOTZIAK

2.- EUSKARA ETA HEZKUNTZA BATZORDEA

- LEHENDAKARIA: JESUS PEÑAGARIKANO
- KIDEAK: ITZIAR ARRATIBEL
- GAINONTZEKO BILDU KOALIZIOKO ZINEGOTZIAK
- MARIA ICIAR JAUREGUI, MARIA CRISTINA GOYA
- GAINONTZEKO EAJ-KO ZINEGOTZIAK

3.- GAZTERIA BATZORDEA

- LEHENDAKARIA: MIKEL AGIRREZABALA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- KIDEAK: IRATI OZAITA
- GAINONTZEKO BILDU KOALIZIOKO ZINEGOTZIAK
- MARIA CRISTINA GOYA, MARIA ICIAR JAUREGUI
- GAINONTZEKO EAJ-KO ZINEGOTZIAK

4.- KIROL BATZORDEA

- LEHENDAKARIA: MIKEL AGIRREZABALA
- KIDEAK: JESUS PEÑAGARIKANO
- GAINONTZEKO BILDU KOALIZIOKO ZINEGOTZIAK
- ELEUTERIO SANCHEZ, JUAN LUIS CID
- GAINONTZEKO EAJ-KO ZINEGOTZIAK

5.- GIZARTE POLITIKAK BATZORDEA

- LEHENDAKARIA: ITZIAR ARRATIBEL
- KIDEAK: ARKAITZ FRAILE
- GAINONTZEKO BILDU KOALIZIOKO ZINEGOTZIAK
- VICTORIA RODRIGUEZ, ELEUTERIO SANCHEZ
- GAINONTZEKO EAJ-KO ZINEGOTZIAK

6.- HIRIGINTZA BATZORDEA

- LEHENDAKARIA: HANOT KARRERA
- KIDEAK: MIKEL AGIRREZABALA
- JUAN LUIS CID, MARIA CRISTINA GOYA
- GAINONTZEKO EAJ-KO ZINEGOTZIAK

7.- INGURUMEN, MERKATARITZA ETA NEKAZARITZA BATZORDEA

- LEHENDAKARIA: ARKAITZ FRAILE
- KIDEAK: HANOT KARRERA
- GAINONTZEKO BILDU KOALIZIOKO ZINEGOTZIAK
- VICTORIA RODRIGUEZ, ELEUTERIO SANCHEZ
- GAINONTZEKO EAJ-KO ZINEGOTZIAK

8.- OBRA ETA ZERBITZU BATZORDEA

- LEHENDAKARIA: HANOT KARRERA
- KIDEAK: MIKEL AGIRREZABALA
- GAINONTZEKO BILDU KOALIZIOKO ZINEGOTZIAK
- ELEUTERIO SANCHEZ, MARIA CRISTINA GOYA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- GAINONTZEKO EAJ-KO ZINEGOTZIAK

9.- KULTURA BATZORDEA

- LEHENDAKARIA: ITZIAR ARRATIBEL
- KIDEAK: JESUS PEÑAGARIKANO
- GAINONTZEKO BILDU KOALIZIOKO ZINEGOTZIAK
- MARIA CRISTINA GOYA ETA MARIA ICIAR JAUREGUI
- GAINONTZEKO EAJ-KO ZINEGOTZIAK

10- KONTU BEREZI ETA OGASUNEKO BATZORDEA

- LEHENDAKARIA: MIKEL AGIRREZABALA
- KIDEAK: ITZIAR ARRATIBEL
- GAINONTZEKO BILDU KOALIZIOKO ZINEGOTZIAK
- JUAN LUIS CID, MARIA ICIAR JAUREGUI
- GAINONTZEKO EAJ-KO ZINEGOTZIAK

11.- PERTSONAL BATZORDEA

- LEHENDAKARIA: MIKEL AGIRREZABALA
- KIDEAK: ITZIAR ARRATIBEL
- GAINONTZEKO BILDU KOALIZIOKO ZINEGOTZIAK
- JUAN LUIS CID, VICTORIA RODRIGUEZ
- EAJ ZINEGOTZIAK ESATEKE

Idazkariak jakinarazten du, Batzorde Iraunkorren konposizio hau ez dela ohikoa. Azken finean Udalbatza osoa Batzordeetara eramaten dela dirudi. Ulertzen duela kuoruma lortzeko modu egokiena dela baina ez da konposizio egokiena.

Idazkariak jakinarazten du Batzorde Iraunkorretan kuorum arazoak ekiditeko, aldez aurretik batzordean parte hartuko duten edo ez jakinaraztea eskertuko dela.

Udalbatzak, 6 aldeko botorekin, (BILDU) eta 5 kontrako botorekin (EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Ibarra Udalbatzak honako Batzorde Informatibo Iraunkorrak eratzen ditu:

1.- POLITIKA FEMINISTA ETA ANIZTASUNA



IBARRAKO UDALA

**(Gipuzkoa)
Euskal Herria**

- LEHENDAKARIA: IRATI OZAITA
- KIDEAK: ARKAITZ FRAILE
- GAINONTZEKO BILDU KOALIZIOKO ZINEGOTZIAK
- MARIA CRISTINA GOYA, VICTORIA RODRIGUEZ
- GAINONTZEKO EAJ-KO ZINEGOTZIAK

2.- EUSKARA ETA HEZKUNTZA BATZORDEA

- LEHENDAKARIA: JESUS PEÑAGARIKANO
- KIDEAK: ITZIAR ARRATIBEL
- GAINONTZEKO BILDU KOALIZIOKO ZINEGOTZIAK
- MARIA ICIAR JAUREGUI, MARIA CRISTINA GOYA
- GAINONTZEKO EAJ-KO ZINEGOTZIAK

3.- GAZTERIA BATZORDEA

- LEHENDAKARIA: MIKEL AGIRREZABALA
- KIDEAK: IRATI OZAITA
- GAINONTZEKO BILDU KOALIZIOKO ZINEGOTZIAK
- MARIA CRISTINA GOYA, MARIA ICIAR JAUREGUI
- GAINONTZEKO EAJ-KO ZINEGOTZIAK

4.- KIROL BATZORDEA

- LEHENDAKARIA: MIKEL AGIRREZABALA
- KIDEAK: JESUS PEÑAGARIKANO
- GAINONTZEKO BILDU KOALIZIOKO ZINEGOTZIAK
- ELEUTERIO SANCHEZ, JUAN LUIS CID
- GAINONTZEKO EAJ-KO ZINEGOTZIAK

5.- GIZARTE POLITIKAK BATZORDEA

- LEHENDAKARIA: ITZIAR ARRATIBEL
- KIDEAK: ARKAITZ FRAILE
- GAINONTZEKO BILDU KOALIZIOKO ZINEGOTZIAK
- VICTORIA RODRIGUEZ, ELEUTERIO SANCHEZ
- GAINONTZEKO EAJ-KO ZINEGOTZIAK

6.- HIRIGINTZA BATZORDEA

- LEHENDAKARIA: HANOT KARRERA
- KIDEAK: MIKEL AGIRREZABALA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- JUAN LUIS CID, MARIA CRISTINA GOYA
- GAINONTZEKO EAJ-KO ZINEGOTZIAK

7.- INGURUMEN, MERKATARITZA ETA NEKAZARITZA BATZORDEA

- LEHENDAKARIA: ARKAITZ FRAILE
- KIDEAK: HANOT KARRERA
- GAINONTZEKO BILDU KOALIZIOKO ZINEGOTZIAK
- VICTORIA RODRIGUEZ, ELEUTERIO SANCHEZ
- GAINONTZEKO EAJ-KO ZINEGOTZIAK

8.- OBRA ETA ZERBITZU BATZORDEA

- LEHENDAKARIA: HANOT KARRERA
- KIDEAK: MIKEL AGIRREZABALA
- GAINONTZEKO BILDU KOALIZIOKO ZINEGOTZIAK
- ELEUTERIO SANCHEZ, MARIA CRISTINA GOYA
- GAINONTZEKO EAJ-KO ZINEGOTZIAK

9.- KULTURA BATZORDEA

- LEHENDAKARIA: ITZIAR ARRATIBEL
- KIDEAK: JESUS PEÑAGARIKANO
- GAINONTZEKO BILDU KOALIZIOKO ZINEGOTZIAK
- MARIA CRISTINA GOYA ETA MARIA ICIAR JAUREGUI
- GAINONTZEKO EAJ-KO ZINEGOTZIAK

10- KONTU BEREZI ETA OGASUNEN BATZORDEA

- LEHENDAKARIA: MIKEL AGIRREZABALA
- KIDEAK: ITZIAR ARRATIBEL
- GAINONTZEKO BILDU KOALIZIOKO ZINEGOTZIAK
- JUAN LUIS CID, MARIA ICIAR JAUREGUI
- GAINONTZEKO EAJ-KO ZINEGOTZIAK

11.- PERTSONAL BATZORDEA

- LEHENDAKARIA: MIKEL AGIRREZABALA
- KIDEAK: ITZIAR ARRATIBEL
- GAINONTZEKO BILDU KOALIZIOKO ZINEGOTZIAK
- JUAN LUIS CID, VICTORIA RODRIGUEZ



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- GAINONTZEKO EAJ-KO ZINEGOTZIAK

LAUGARRENGOA

KIDE ANITZEKO ORGANO ORDEZKARIAK IZENDATZEA

Alkateak, kidea anitzeko organoen ordezkariak izendatzeko proposamen hau egiten dio Udaltzari, honek onar dezan:

1.- TOLOSALDEA GARATZEN

- ITZIAR ARRATIBEL. (BILDU)
- ORDEZKOA: MIKEL AGIRREZABALA (BILDU)

2.- MANKOMUNITATEA:

- MIKEL AGIRREZABALA. (BILDU)
- ORDEZKOA: ITZIAR ARRATIBEL (BILDU)

3.- LOATZO MUSIKA ESKOLA

- JESUS PEÑAGARIKANO. (BILDU)
- ORDEZKOA: ITZIAR ARRATIBEL (BILDU)

4.- HILTEGIKO MANKOMUNITATEA

- HANOT KARRERA (BILDU)

5.- TOLOMENDI:

- ARKAITZ FRAILE. (BILDU)
- ORDEZKOA: MIKEL AGIRREZABALA (BILDU)

6.- EUSKAL FONDOA:

- ITZIAR ARRATIBEL

7.- UR KONTSORTZIOA:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- MIKEL AGIRREZABALA. (BILDU)
- ORDEZKOA: ITZIAR ARRATIBEL (BILDU)

8.- APATTA INDUSTRIALDEA KONTSERBATZEKO HIRIGINTZA INTERESEKO TALDEA

- MIKEL AGIRREZABALA (BILDU)

9.- TOLOSALDEKO APATTA ERREKA INDUSTRIA LURRA S.A

- MIKEL AGIRREZABALA (BILDU)

10.- APATTA ERREKAKO INDUSTRIGUNEA S.L

- MIKEL AGIRREZABALA (BILDU)

Udalbatzak, 6 aldeko botorekin, (BILDU) eta 5 kontrako botorekin (EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Ibarra Udalbatzak kidea anitzeko organoen ordezkariak honako zinegotzi hauek izendatzen ditu:

1.- TOLOSALDEA GARATZEN

- ITZIAR ARRATIBEL. (BILDU)
- ORDEZKOA: MIKEL AGIRREZABALA (BILDU)

2.- MANKOMUNITATEA:

- MIKEL AGIRREZABALA. (BILDU)
- ORDEZKOA: ITZIAR ARRATIBEL (BILDU)

3.- LOATZO MUSIKA ESKOLA

- JESUS PEÑAGARIKANO. (BILDU)
- ORDEZKOA: ITZIAR ARRATIBEL (BILDU)

4.- HILTEGIKO MANKOMUNITATEA

- HANOT KARRERA (BILDU)

5.- TOLOMENDI:



IBARRAKO UDALA

(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- ARKAITZ FRAILE. (BILDU)
- ORDEZKOA: MIKEL AGIRREZABALA (BILDU)

6.- EUSKAL FONDOA:

- ITZIAR ARRATIBEL

7.- UR KONTSORTZIOA:

- MIKEL AGIRREZABALA. (BILDU)
- ORDEZKOA: ITZIAR ARRATIBEL (BILDU)

8.- APATTA INDUSTRIALDEA KONTSERBATZEKO HIRIGINTZA INTERESEKO TALDEA

- MIKEL AGIRREZABALA (BILDU)

9.- TOLOSALDEKO APATTA ERREKA INDUSTRIA LURRA S.A

- MIKEL AGIRREZABALA (BILDU)

10.- APATTA ERREKAKO INDUSTRIGUNEA S.L

- MIKEL AGIRREZABALA (BILDU)

BOSGARRENA

TOKIKO GOBERNU BATZORDEA ERATZEA

Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 20. artikuluan eta Antolamendu eta Funtzionamendu Araudiak 35. artikuluan xedatutakoa hartu da kontuan; horrela bada Gobernu batzordea beharrezko organoa da 5.000 biztanletik gorako herrietan eta Arautegi Organikoak hala ezartzen duenean edo udalbatzarrak hori erabakitzen duenean.

Alkateak proposatu du berau eratzea beharrezko jotzen duelako nahiz eta Ibarrek ez dituen 5.000 biztanle eta ez duen onartua Arautegi Organikorik. Udal eskumenen barne nahiz kanpo funtzionamendurako eraginkorrago ikusten du eratzea. Horrez gain, adierazi du Gobernu Batzordeak izaera irekia izango lukeela parte hartu nahi duten zinegotzi guztientzat, nahiz eta



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

bertako kide ez izan. Hura ez eratzeak , udaleko gaiak Alkate Dekretu bidez kudeatzera behartuko luke.

Udalbatzak, 6 aldeko botorekin, (BILDU) eta 5 abstentzioekin (EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Tokiko Gobernu Batzarra eratzea Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 20. artikuluan eta Antolamendu eta Funtzionamendu Araudiak 35. artikuluan xedatutakoa aintzat hartuz.

Alkateak Tokiko Gobernu Batzarra eraturik, 180/2015 Alkate Dekretu bidez Tokiko Gobernu Batzordeko kideak zehazten dira eta Alkateak Tokiko Gobernu Batzordeari esleitzen dizkion eskuduntzak zehazten dira.

180/2015 ALKATE DEKRETUA

Ikusirik Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 20. artikuluan eta Antolamendu eta Funtzionamendu Araudiak (7/1985 Legearen)35. artikuluan xedatutakoa hartu da kontuan; horrela bada Gobernu batzordea beharrezko organoa da 5.000 biztanletik gorako herrietan eta Arautegi Organikoak hala ezartzen duenean edo udalbatzarrak hori erabakitzen duenean.

Alkateak proposatzen du berau eratzea beharrezko jotzen duela nahiz eta Ibarrek ez dituen 5.000 biztanle eta ez duen onartu Arautegi Organikorik. Udal eskumenen barne nahiz kanpo funtzionamendurako eraginkorrago ikusten du eratzea. Gobernu Batzordeak izaera irekia izango du parte hartu nahi duten zinegotzi guztientzat nahiz eta bertako kide ez izan.

Kontuan harturik aipatutako lege xedapenaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarra, Alkatea eta zinegotziez osatuko dela, eta azken hauek ezin dutela osoko bilkurako herena baino gehiago izan; hiru kide izendatzen dira.

Kontutan harturik 7/1985 Legearen 23. artikuluan eta 2568/1986 Errege Dekretuaren 46 artikuluan arabera, alkatearen eskumena dela Tokiko Gobernu Batzarraren kideak izendatzea, gero Osoko bilkurari horren berri emanez.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Kontutan harturik 7/1985 Legearen 21. artikulua eta 2568/1986 Errege Dekretuaren 41.3 artikulua araberako, Alkateak bere eskumenak delegatu ditzakeela, besteak beste Tokiko Gobernu Batzordean.

Aipatu guztiagatik .

EBAZTEN DUT

LEHENA.- Tokiko Gobernu Batzordek kide hauek izendatzea:

- Lehendakaria: MIKEL AGIRREZABALA EZKURDIA
- Bokalak
 - MIREN ITZIAR ARRATIBEL IMAZ
 - JESUS PEÑAGARIKANO LABAKA

BIGARRENA.- Tokiko Gobernu Batzordean Alkatearen ondorengo funtzioak eskuordetzea:

1. 18.000 eurotik gorako obrak, zerbitzuak eta hornidurak kontratatzea eta ematea, horien kopurua 300.000 euro baino gehiagokoa ez bada, hainbat urtetarakoak direnak ere sartzen dira, lau urte baino behiagorako ez badira, baldin eta urte guztietako zenbatekoak metatuz ez bada gaintzen ez aipatutako ehunekoa, lehen ekitaldiko aurrekontuko baliabide arrunteei dagokienez, ez eta aipatutako kopurua ere. Kontratu hauek esleitzeko pleguen onarpena.
2. Obra eta zerbitzu egitasmoak onartzea, haiek kontratatzeke edo emateko eskumena badu
3. 18.000 eurotik gorako ondasunak eta eskubideak erostea, haien balioak ez badu 300.000 euro gaintzen, eta bestalde, adierazitako ehuneko eta zenbateko hori gaintzen ez duen ondarea besterentzea, ondoko kasu hauetan:
 - a. ondasun higiezinak, aurrekontuan aurreikusita badago
 - b. ondasun higigarriak, balio historiko artistikoak izan ezik aurrekontuan besterentzea aurreikusita ez badago.
4. Planeamendu orokorraren garapenerako planeamendu tresnak onartzea, ez badaude udalbatzari espresuki esleituak, bai eta hirigintza kudeaketarako tresnak, bere eskumenen araberako dagozkion hirigintza hitzarmenak barne, eta hirigintza egitasmoak, eta eraikin berrien kasuetan, obra handien baimena eta erabilera baimena ematea.
5. Aurri-deklarazioak egitea, berehalako aurri-deklarazioa izan ezik.
6. Hirigintzako zehapen espedienteen ebazpenak, larri edo oso larriak direnean.
7. Udal ordenantzekiko arau haustea zigortzea 600 eurotik aurrera, non eta ahalmen hori beste organo batzuei egotzirik ez den.
8. 18.000 euro eta 300.000 euro bitarteko gastuak baimentzea eta baliatzea, bere ahalmenen barruan.
9. Langileak hautatzeko probetarako oinarriak onartzea, bai eta lanpostu lehiaketetarakoak ere, eta finakoak eta aldizka-aldizkakoak ez diren ordainsariak banatzea.
10. Udal administrazioko funtzionarioei diziplina espedienteak irekitzea.
11. Ondare erantzukizun espedienteak ebaztea
12. 1000 eurotik gorako diru-laguntzak ematea, diru laguntza hauen oinarriak onartzea eta diru laguntza hauen zuriketak onartzea.
13. Emakida, alokatze edo lagapenerako ahalmenak ondasunak erabil daitezzen, betiere



IBARRAKO UDALA

(Gipuzkoa)

Euskal Herria

horien iraupena bost urte baino gutxiago bada eta urteko aurrekontuaren baliabide arrunten % 10 gaingitzen ez badute.

14. Kontuhartzaitetzan jasotzen diren eta aurrekontuan gauzatzeko arauari dagokion ordainagiriak onestea, udal aurrekontua gauzatzeko oinarrietan xedatutako betetzen bada.

HIRUGARRENA.- Tokiko Gobernu Batzordea hilero 2.en asteko ostiralean eta hilero 4.en asteko ostiralean bilduko da.

SEIGARRENA

ALKATEA ETA ZINEGOTZIEN LIBERATZEA ETA ORDAINSARI ERREGIMENA ERABAKITZEA

7/1985 Legearen 73,75, 75 bis eta 75ter artikuluek eta 2468/1986 Errege Dekretuaren 13 artikuluan aipatutakoari jarraiki, legeldi honetarako lanaldien eta ordainketen erregimen hau proposatzen da:

1.- Denbora osoko lanaldiak

1.1 Alkatea lanaldi osoan

Alkateak bere kargua %100ko lanaldian egingo du. Bere urteko ordainsari gordina 41.470 eurotako izango da.

Tokiko Korporazioetako kideen ordainsariei buruz Gipuzkoako Foru Aldundiko Foru Administrazioetako eta Funtzio Publikoko departamentuko Erregimen Juridikoko Zuzendari Nagusiak 2015eko ekainaren 11n emaniko txostenaren arabera, Lurralde Historikoak gaiaren erregulazioa osatzen duen artean Udalei dagokie, beren egoera ekonomikoa kontutan hartuz, beren korporatiboen ordainsariak osatzea, errespetatuz, edozein kasuan, Estatuko Legedian ezarritako oinarri eta egitura. Soldata ezartzeko erabiltzen dugun proposamena Eudelek Gipuzkoako Lurralde Historikoan tokiko administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunerako neurriak ezartzeko foru-berezitasunari burutako Foru Arauaren Aurreproiektua alegia.

Proposamen honetan, 2001-5000 biztanleko udalerrietan, ordainsarientzako muga Eusko Jaurlaritzako zuzendariarentzako ezarritako ordainsarien %15eko baliokidean ezartzea proposatzen da. Zuzendariaren urteko zenbatekoaren %15 57.023 euro dira. Ondorioz, 41.470 eurotako soldatak ez du gaingitzen aurrikusitako kopurua.

Ordainketa hauek dagozkion zerga betebeharrei lotuak egongo dira eta Udal honetako gastu aurrekontuaren 1. kapituluaren kargura kontabilizatuko dira. Alkatearen ordainsaria 2015eko ekainaren 13tik aurrera egingo da (ondorioz ordainketa burutu ez bada atzeraeraginkortasunez aplikatuko da), egun horretan eman baitzizaion Gizarte Segurantzaren alta.

. 1.2 Miren Itziar Arratibel zinegotzia lanaldi osoan



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Alkateak Miren Itziar Arratibel zinegotziak bere kargua %100ko lanaldian egitea proposatzen du. Ikusita Gizarte zerbitzuetako eta Kulturako sailetako ardurak egokitu zaizkiola eta Alkateak eskumenak eskuordetu dizkiola ezinbestekoa da %100 lanaldian lan egitea. Bere urteko ordainsari gordina 34.080 eurotakoa izango da.

Tokiko Korporazioetako kideen ordainsariei buruz Gipuzkoako Foru Aldundiko Foru Administrazioetako eta Funtzio Publikoko departamentuko Erregimen Juridikoko Zuzendari Nagusiak 2015eko ekainaren 11n emaniko txostenaren arabera, Lurreko Historikoak gaiaren erregulazioa osatzen duen artean Udalei dagokie, beren egoera ekonomikoa kontutan hartuz, beren korporatiboen ordainsariak osatzea, errespetatuz, edozein kasuan, Estatuko Legedian ezarritako oinarri eta egitura. Soldata ezartzeko erabiltzen dugun proposamena Eudelek Gipuzkoako Lurreko Historikoan tokiko administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunerako neurriak ezartzeko foru-berezitasunari burutako Foru Arauaren Aurreproiektua alegia.

Proposamen honetan, 2001-5000 biztanleko udalerrietan, ordainsarientzako muga Eusko Jaurlaritzako zuzendariarentzako ezarritako ordainsarien %15eko baliokidean ezartzea proposatzen da. Zuzendariaren urteko zenbatekoaren %15 57.023 euro dira. Ondorioz, 34.080 eurotako soldata ez du gainditzen aurrikusitako kopurua.

Ordainketa hauek dagozkion zerga betebeharrak lotuak egongo dira eta Udal honetako gastu aurrekontuaren 1. kapituluaren kargura kontabilizatuko dira.

Ordainketa hau, 2015eko uztailaren 1etik aurrera egingo da.

2.- Ordainsariak

Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 75. artikuluan eta Antolamendu eta Funtzionamendu Araudiak 13. artikuluan xedatutakoa hartu da kontuan. Horietan toki-entitateen kideek beren karguak gauzatzeagatik ordainsariak jasoko dituztela ezarri da, baldin eta zatiko arduraldia edo erabateko arduraldia badute.

Alkateak, bere talde politikoaren izenean, hau proposatu du:

- a) Alkate udalburuak : 41.470 euro gordin urtean
- b) Zinegotzi liberatuak: 34.080 euro gordin urtean
- c) 175€ hilean alderdi politiko bakoitzari.
- d) 135€ hilean zinegotzi bakoitzari baldin eta hilabete horretan Batzorde Informatibo edo eta Udalbatzaren Bilkura batetan parte hartzen badute
- e) Batzorde informatiboko buruei 170€ hilero
- f) Gobernu Batzarreko kideek ez dute ordainsaririk.
- g) Ez dago ordainsaririk Gobernu Batzarren bilerara etortzeagatik, baina lan-orduetan bada, galdutako ordu horiek ordainduko dira
- h) Ez dago ordainsaririk batzorde informatiboen bilerara etortzeagatik, baina lan-orduetan bada, galdutako ordu horiek ordainduko dira
- i) Ez dago ordainsaririk organo kolejiatuen bileretara joateagatik, baina lan-orduetan bada, galdutako ordu horiek ordainduko dira
- j) Zinegotzi autonomoek galdutako lan-orduagatik 20 euro.

Udalbatzak, 6 aldeko botorekin, (BILDU) eta 5 abstentziorekin (EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BAKARRA: Ibarra kideek beren karguak gauzatzeagatik honako ordainsariak jasoko dituztela (baldin eta zatiko arduraldia edo erabateko arduraldia badute)

- a) Alkate udalburuak : 41.470 euro gordin urtean
- b) Zinegotzi liberatuak: 34.080 euro gordin urtean

- c) 175€ hilean alderdi politiko bakoitzari.
- d) 135€ hilean zinegotzi bakoitzari baldin eta hilabete horretan Batzorde Informatibo edo eta Udaltzataren Bilkura batetan parte hartzen badute

- e) Batzorde informatiboko buruei 170€ hilero
- f) Gobernu Batzarreko kideek ez dute ordainsaririk.
- g) Ez dago ordainsaririk Gobernu Batzarrearen bilerara etortzeagatik, baina lan-orduetan bada, galdutako ordu horiek ordainduko dira
- h) Ez dago ordainsaririk batzorde informatiboen bilerara etortzeagatik, baina lan-orduetan bada, galdutako ordu horiek ordainduko dira
- i) Ez dago ordainsaririk organo kolegiatuen bileretara joateagatik, baina lan-orduetan bada, galdutako ordu horiek ordainduko dira
- j) Zinegotzi autonomoek galdutako lan-orduagatik 20 euro.

Ordainketak egiteko Idazkaritzaren ziurtagiria beharko da, asistentzia ziurtatzen duena.

Ordainketa hauek dagozkioen PFEZ zergaren atxikipenari lotuak egongo dira eta Udal honetako gastu aurrekontuaren 1. kapituluaren kargura kontabilizatuko dira. Salbu Talde Politikoen eta zinegotzi bakoitzaren hilekoa, hauek gastu aurrekontuaren 4. kapituluaren arabera kontabilizatuko dira.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da goiburuan adierazitako egunaren arratsaldeko zazpiak eta hogeitun. Nik, behin-betiko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko.